

Euskal Liburutegi-Sarearen bitartez kultur arteko integrazioa sustatzeko kanpaina jarri du martxan Jaurilaritzak

EAEko 18 liburutegik "proiektu pilotu" bat garatuko dute, liburutegiak kultura-integratzeko gune gisa indartzeko

BILBO, 15 (EUROPA PRESS)

Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak ekimen berritzailea aurkeztu du gaur "Liburutegiak Topaleku-Las Bibliotecas, un lugar de encuentro" goiburupean, liburutegiak sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun elkarrekin bizi diren kultura guztien integratzeko gune gisa, zenbait balioen (berdintasuna, tolerantzia eta aniztasuna, esaterako) sustapenetik abiatuta.

Aurkezpen-ekitaldia Bilbon egin da, San Frantziskoko Udal Liburutegian, eta Eusko Jaurilaritzako Kultura sailburu Miren Azkarate, Bilboko Udaleko Kultura zinegotzi Ibone Bengoetxea, Eusko Jaurilaritzako Ondare zuzendari Arantza Arzamendi eta Kultura arteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Ekimen Komunitarioak Koordinatzeko Zentroko (Biltzen) arduradun Carolina Fetescu bertaratu dira.

Azkarateren hitzetan, "aniztasunaren gizartean bizi gara, mugak lausotu eta jendeak nahasten diren gizartean. Kultura anitzeko jokaleku berri honetan, liburutegiak garrantzizko eginkizuna betetzen du kultura eta hizkuntza desberdinak kulturaren bitartez hedatzeko".

"Liburutegiak Topaleku" goiburupean, gaur aurkezturiko ekimena kultur aniztasunaren kontzeptuan oinarritzen da, eta, horri jarraiki, hainbat liburu, aldizkari eta komunikabide inportatuko dira Euskadiko etorkinen jatorriko herrialdeetatik, arabiar, errumaniar eta txinatar jatorriko herrialdeetatik bereziki, Euskadin bizi diren etorkin gehienak handik datozela kontuan hartuta.

Horren haritik, funts bibliografiko, dokumental eta bisualak handitu nahi dira, aipaturiko jatorria duten aleekin eta dagozkien hizkuntzetan. Azken helburua etorkinek liburutegietan zerbitzu publiko interesgarria aurkitzea da, hots, etorkinek liburutegietan nork bere kulturaren agerkariak (literatura, informazioa eta abar) eskuratzeko aukera izatea, eta aldi berean gizartea osatzen dugun gainerako herritarrekiko batasun-loturak sustatzea.

Eusko Jaurilaritzaren Liburutegi Zerbitzuak "Munduko egunkariak" programaren lizentziak erosi ditu, eta sei liburutegitan ezarri, mundu osoko 200 egunkari baino gehiago eskuratzeko eta inprimatzeko aukera emanez. Hala, etorkinek "beren jatorriko tokietako prentsa irakur dezakete, baita paperean ere", azaldu du Kultura sailburuak.

Gainera, Liburutegi Zerbitzuak hainbat hizkuntzako (arabiera, poloniera eta abar) liburu eta aldizkari sortak erosi ditu, hizkuntzak ikasteko metodoak eta haur, gazte eta helduentzako materialak barne. Eskatzen dituzten liburutegien eskura jarriko dira bilduma horiek, Liburutegi arteko Mailegu Zerbitzuaren bitartez.

Kulturaren Euskal Planaren "Liburutegiak eta Kultura-aniztasuna" programaren barnean hartzen da proiektu hau. Kulturaren Euskal Plana erakunde arteko plana da, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak bultzatua erakunde-agente nagusiekin (aldundiak eta udalak) eta Euskadin kulturaren "paisaia" osatzen duten sektoreekin -hala nola dantza, antzerkia, musika, arte bisualak eta plastikoak, liburutegiak eta abar- elkarlanean. 13 sektore-lantalde osatu dira guztira.

"Liburutegiak eta Kultura-aniztasuna" programaren helburua da liburutegi-zerbitzuak etorkinen kolektibo guztien premia eta interesetara egokitze esku-hartze programa diseinatzea, etorkinak gizartera daitezen lortzeko helburuarekin.

Kanpaina hau prestatzerakoan, Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuak, Kultura arteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Ekimen Komunitarioak Koordinatzeko Zentroak (Biltzen) -Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Inmigrazio Zuzendaritzaren menpekoa-, Immigratio Behatokiak (Ikuspegi) eta Arabako Foru Aldundiko, Bilboko, Ermuko edo Zarauzko liburutegi-teknikariek esku hartu dute, eta gainera elkarre, fundazio eta enbaxada guztiekiko komunikazio eta laguntzarako kanalak sortu dira.

PROIEKTU PILOTUA

Aldi berean, eta ildo beretik jarraitzeko asmoarekin, Azkaratek aurreratu du urriaren 24tik aurrera "proiektu pilotu bat" jarriko dela abian EAEko 18 liburutegitan: Bilbo, Gasteiz, Agurain, Arrigorriaga, Basauri, Bermeo, Bergara, Durango, Eibar, Elgoibar, Erandio, Ermua, Errearteria, Getxo, Irun, Leioa, Markina eta Zarautzen. Urriaren 24an Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta aurten kultura-aniztasuna izango du ardatz.

Proiektu pilotu horren esparruan, urtea amaitu arte hainbat jarduera garatuko dira haur eta gazteentzat. Helduentzat, tailerrak eta ipuin-kontalarien saioak antolatuko dira, herritarren artean kultura-aniztasunaren ideia garatzeko. 12-16 urteko gazteentzat ipuin-lehiaketa bat antolatuko da web-orrian, idazle batek dinamizatuta.

Halaber, beste hainbat material (kartelak, orri-markagailuak, eranskailuak, zerbitzu-gida, irakurketa-gida eta abar) banatuko dira Irakurketa Publikoko Sarean bilduriko liburutegi guztietan. Jardunaldi tekniko bat ere antolatuko da Sare osoarentzat, datorren urtearen hasieran.

Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuak eta Euskadiko udal-liburutegiek liburutegiak indartu nahi dituzte kultura-integraziorako gune gisa, eta, horren haritik, irakurketa-gida bat proposatu dute, "Haiena, gurea: tolerantziarako irakurketak" izenburupean. 50 lan hautatu dira, hain zuzen ere berdintasunari, tolerantziari eta aniztasunari buruzko narrazio eta ipuinak, liburutegietako erabiltzaileei, bertakoei eta etorkinei, eskaintzeko.

Kartel, orri-markagailu eta eranskailuetan kanpainaren goiburua ageri da: ("Las bibliotecas, un lugar de encuentro / Liburutegiak topaleku / Les bibliothèques un lieu de rencontre / The libraries place of meeting"). Izan ere, ekimen hau kanpaina horren oinarriaren gainean eraiki da, liburutegiek, informazioko eta dokumentu-bilaketako zerbitzuak eskaini ez ezik, herritar guztiei harrera egiteko eginkizuna ere betetzen dutela adierazi nahian.

Bederatzi hizkuntzatan (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, portugesa, errumaniera, errusiera, arabiera eta txinera) idatziriko "Hurbildu" Zerbitzu Gidak liburutegietan eskaintzen diren zerbitzu eta jarduerak azaltzen ditu. Agerkari horrek ahalbidetuko du liburutegi-zerbitzuak etorkinen kolektiboetara helaraztea, eta profesionalentzat ere lagungarri izango da, zerbitzu horien nondik norakoak azaltzeko eginkizunean.